



“Kaleak denontzat berdin”, parte hartze prozesua Andoainen

Partaidetza handia Bertxin egoitzan antolatutako tailerrean. Prozesuak jarraipena izango du datozen egunetan.

Andoaingo kaleak denontzat berdina izan daitezten, Udalak abiatutako prozesua martxan jarri da aste honetan. Atzoko tailerra Bertxin egoitzan izan zen, 60 urtetik goren koei zuzenduta. Orain arteko jendetsuena izan zen, izan ere, izugarritzko partaidetza egon zen eta guztira, 40 lagun inguru bildu ziren.

Urbes For All eta Elhuyar taldeko aholkularien gidaritzapean, eskuetan herriaren mapa hartu eta taldeka bildu ziren, mugikortasuna, espazio publi-



Abendurako tailer guztietan jasotako proposamenekin mapa bat osatuko dute.

koak eta segurtasuna aintzat hartuz, aldatu beharreko puntuak markatzeko. Behar nagusiak argitasunarekin eta aldapekin lotuta zeuden. Hala, Andoainen argitu beharreko espazioak aipatu zituzten: Kaletxi-

ki, Nafarroa plaza, Bertxin egoitza ingurua... Bestalde, aldapa handietan eskailerak jartzeko eskatu zuten.

Horrez gain, adibidez, Gokoplaza putzuz betetzen dela, zaborrontzi gehiago behar di-

Tailerretan jasotako proposamenekin mapa osatuko dute, herritarren beharren inguruan Udalari informazioa helarazteko

rela eta Urnietarako bidean eserleku gehiago nahiko lituzketela adierazi zuten. Tailer guztietan jasotako proposamenekin mapa bat osatuko dute abendu ingururako, herritarren beharren inguruan Udalari informazioa helarazteko.

HURRENGO HITZORDUAK

Gazte Lokaleko kideak: Azaroak 20, osteguna 18:00. Gazte Lokala. Berdintasun kontseilukoak: Azaroak 24, astelehena 18:30. Urigain. Deialdi irekia: Azaroak 26, asteazkena 18:30. Bastero.

Gaztetxea, urteurren ospakizun betean



[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Leyçaur liburu berria

Bost idazlan aukeratu dituzte Leyçaur Udal artxiboko 13. ediziorako. Burdingintza, Napoleonen garaia, Andoingo papergintza, Andoingo emakumeak eta artea hizpide dira aurtengo edizioan. Dagoeneko eskuragarri dago, 12 euroko prezioan.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

Biribilgune berria Urnietan

Foru Aldundiak astelehenean iragarri zuenez, urte amaierarako prest izango da biribilgunea. Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak lan-sailekoak aste honetan bertan hasi dira eraikitze lanetan, orain arte egon den behin-behinekoari irtenbidea emateko. Andoain aldeko herriaren sarreran, Sale-siar ikastetxetik gertu, bidegorria

amaitzen ari dira. Ia jarraian biribilgunea eraikitzen hasi direla iragarri dute, “lanek bost aste iraungo dute, eta beraz, urte bukaerarako prest egotea espero da. Biribilgunea eraikita Aldundiak urnietarren aspaldiko eskaerari erantzungo dio, eta azken urteetako behin-behinekotasun egoerari aterabidea emango dio”.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Talentu lehiaketa

Andoaingo Gazte Lokalak “Andoaindarrak izar” lehiaketa martxan jarri du. Asteburu honetan eta hurrengoan burutuko da, Gazte Lokalean eta Basteron.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

Munduari itzulia...

gorakada teatro

+5 adina

Urnietako Udala

Azaroak 30, igandea
Sarobe AEG
12:00etan
Sarrera 3 €

Aurresalmenta:
Sarobe eta Lekaio kultur etxean, azaroaren 24tik aurrera



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Iragarki nagusia

Munduan ez da erakargarriagorik, arrakastatsuagorik guraso baten-tzat haurrari buruz zer edo zer garrantzizkoa azaltzea baino; norberarengatik bada pasa lezake kasurik egin gabe, baina haurraren-tzat, beraren onerako bada hil edo bizi lortu arte ez du deskantsatuko.

Eta nik esaten dizut zainetan odolik baldin badezu, kasu egiteko eskaintzen dizudan honi. Haurra maitatua erabat sentituko bada zuregandik sei eginbehar daudela egin beharrekoak; bat edo bestean huts egiten baldin badezu haurraren deskalabroa, bizitza osorako gurtzea bizkarreratzen diozula. Oso gutxi libratu dira orain artean gurtze horretatik.

Bi asteburutan: azaroaren azkeneko asteburuan, azaroak 29-30, eta abenduaren lehenengo asteburuan, 6an eta 7an, sei eginbehar horiek zeintzuk diren, nola landu behar diren, zer eginkizun eta zer esateko dagoen, horietako bakoitzean entrenatzeko lau ordu igaroko dira, denetara, beraz, 24 ordu. Ikasketa hau 15 lagunentzat

Nik hau dena jakin eta ezer egin gabe joango banintz Urnietako herri-tik triste joango nintzateke

da, izena ematen dezuen lehenengo 15ek egingo dezue. Gehiago apuntatzen bazarete saiatuko gara irtenbide bat ematen. Apuntatzea nahi badezue deitu 690 869 849 telefono zenbakira.

Nik hau dena jakin eta ezer egin gabe joango banintz Urnietako herri-tik triste joango nintzateke. Nik Urnietan egindako gauzarik garrantzizkoena eskaintzen dizudan hau da: Urnietako haurrak osorik maitatuak, libreak, maitatzen dakitenak, maitatuak sentitu direlako eta ez inseguruak, ez zaurituak, inbidiaz josita, beldurti, atzerati, kezkatu... Horrela izateko nahikoa naiz ni.

Tarta egile batek tarta on bat egiteko bere osagarriak bere neurrian nahastu behar ditu eta horrela lortuko du tarta gustagarri bat egitea. Guraso batek nahi badu haurra erabat maitatzea, haur horrek sentitzeko erabat maitatu dela sei jokabide ditu, ez da berdina maitatua izatea eta maitatua dela sentitzea; horretarako sei osagarri beharko ditu egin.

Zein dira sei jokabide horiek? Zer esan? Nola azaldu? Hori ez egitearekin zer kalte datorkio haurrari? Zein abantaila?

Maite dezun edo adiskide dezun gurasoari adierazi ikasketa hau ematera goazela. Eskerrik asko.

Idiazabal, San Juan eta Errekalde kaleen arteko bidegurutzea

Eraikuntza lanak hasi dira

Garai batean semaforoen bidez erregulatutako bidegurutzea zen Idiazabal, San Juan eta Errekalde kaleen artekoa. Ondoren, zirkulazioa hobetzeko bidegurutzea biribilgune bihurtu zen, aldi baterako, “Aldundiak argi ikusi du behin-behinekotasun egoera horrekin amaitu beharra zegoela, bertako zirkulazioa hobetuz, eta horregatik aste honetan Urnietako biribilgunea eraberritzeko lanak hasiko dira. Lanak Sasoi eraikuntza enpresak egingo ditu eta horien truke 95.670 euro jasoko ditu. Obra burutzeko epea bost astekoa da eta, beraz, lanak urte bukaerarako bukatuko dira”.



Biribilguneko behin-behineko egoerarekin amaituko da, obra amaitzean.

Ipuin kontaketa, adierazpen instituzionala, ikus-entzunezkoak

Azaroaren 25a Urnietan

Azaroaren 25a emakumeengana indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, Udalak hurrengo hamabostaldirako hainbat ekitaldi iragarri ditu:

Azaroak 25, asteartea

18:00 Lekaion helduentzako ipuin saioa: “Cuentos, palabras... Voces de mujeres”, Izaskun Mujika.
19:30 Adierazpen instituzionala.

Azaroak 26, asteazkena

18:30 Gaztegunean *Beldur bari-rik* programazioa.

Azaroak 28, ostirala

22:00 Saroben “Hysteria” filma.

Ekintzaile gazte edota langabetuei zuzenduta dago bereziki

KOOPeratzen egitasmoa



Eskualde ekimen berriko parte hartzaileak eta babesa erakutsi duten erakundeak.

Enpresa berriak sortzeko beharrezkoak diren formazioa, baliabideak, azpiegiturak eta aholkularitza eskaintzea du helburutzat KOOPeratzen ekimenak. Edozein negozio ideia, eredu sozial edo kooperatiboa bideragarri izan dadin, beharrezkoak diren zerbitzu guztiak eskainiko ditu, hala nola, formazio saio sakonak, formaziozko leku iraunkorra, elkarlanerako espazioak, enpresen

inkubategi eta hazitegia, finantzaziorako erraztasunak, merkaturatzeko baliabideak, enpresen lehiakortasuna handitzeko zerbitzuak, euren arteko interkooperazio handitzeko erraztasunak...etab.

Eskualdeko Udal guztiek (Hernani, Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil, Astigarraga eta Urnieta) elkarrekin bultzatutako ekimen honek, Lanbideren diru laguntza du. Azaroaren

14ean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Lasarte-Orian.

NOLA PARTE HARTU

Izen-ematea eskualdeko edozein Udaletako harrera erregistratzen egin daiteke edo Lanbiden, ondorengoak aurkeztuz: -Izena emateko oinarrizko datu pertsonalak.

-Proiektuaren azalpena.

Interesatuak azaroaren 28ra bitarteko epea dute.

“Euskadi Gastronomika” produktu kluba



BEHEMENDI
DONOSTIALDEA BIDASOAKO LANDA
GARAPENERAKO ELKARTEA

“Euskadi Gastronomika” produktu kluba ekimena aurkeztu dute, Donostialdea-Buruntzaldea eremuko 43 turismo-zerbitzuren partaidetzarekin. Programa honen helburu nagusia, Euskadi zein potentzial gastrono-

mikoa duten eskualdeak nazioarteko erreferentzia bilakatzea da. Honela, “Euskadi Gastronomika” marka sortu da, turisten aurrean klubeko kide diren establezimenduak bereizteko, elikagaien eta zerbitzuaren kalitatea ziurtatzuz.

Ekimenean sartuta daude Urnietako Elutxeta eta Oia-nume sagardotegiak, Guria pinxo taberna, K10 Hotela, Altzibar berri, Enbutegi eta Montefrio landetxeak, Adarrazpi gaztandegia eta Basque Cooltour zerbitzu enpresa.

EGUN OSOKO IKASTARO TRINKOAN PARTE HARTZE HANDIA IZAN ZEN

Afrikar dantza ikastaro arrakastatsua Saroben

Buruntzantzan Urnietako batukada taldeak antolatuta, joan zen larunbatean egin zuten Saroben afrikar dantzen egun osoko ikastaro trinkoa.

Adin ezberdinetako 40 pertsonak parte hartu zuen bertan, 30 emakume eta 10 gizon. Goizeko hamarretan eman zitzaion ikastaroari hasiera, Amalur de los Santos irakaslearen gidaritzapean.

Lehenengo saio honetan, arnasketa, presentzia eszenikoa eta hainbat mugimendu landu zituzten bertaratutako ikasleek. Bazkalosteko saioan, zuzeneko perkusioa izan zuten, eta ikasi ahal, mugimendu eta erritmo biziak praktikan jartzeko aukera izan zuten.

Buruntzantzan taldeko kideak gustura agertu ziren ikastaroak izandako arrakastarekin. "Abuztuan Atarrabian izan ginenean izan genuen Amalur eta perkusiojoleekin lehenengo kontaktua eta ikastaro hau antolatzea aukera polita iruditzen zitzaigun herritarrei beste kultura bat ezagutarazteko. Berehala jarri ginen martxan, eta egia esan, espero baino jende gehiago etorri zaigu. Jendeak pozik eta errepikatze goz amaitu du gaurko esperientzia. Udaberrian beste ikastaro bat antolatzen saiatuko gara, ondoren, ikasitakoa, kalean, edo Saroben bertan, herritarrekin elkarbanatzeko."

OLATZ AMALUR DE LOS SANTOS (LA HABANA, 1985)

Olatz izan zen larunbateko afrikar dantzen ikastaroko zuzendaria. Ikastaroa amaitutakoan berarekin hitz egiteko aukera izan zuen Aiurrik.

Zein da zure jatorria?

A.S. Ni Kuban sortu nintzen. Aita bertakoa zen, eta ama berri, Erreterriakoa. Eta hiru



Udaberrian beste ikastaro bat antolatzen saiatuko dira, ondoren ikasitakoa kalean edo Saroben bertan eskaintzeko.



urte nintuelarik etorri nintzen amarekin bere jaioterrira, geroztik Erreterrian bizitu naiz.

Nondik datorkizu afrikar dantzen zengana zaletasuna?

A.S. Dantza egitea odolean daramadan zerbait dela esango nuke. Balleta egin nuen umetan, jazz modernoa ere bai ondorenean, beti ere, igeriketaz uzten zidan denbora librean, igerilaria bainintzen. Baina, nire buruan hor neukan beti halako erakarpene moduko bat Afrikako dantzekiko. Hemen

oso zaila zen, eta da, dantza hauek topatzea, baina behin, Zestoako talde batek, dantza afrikarrak txalapartaren musikarekin nahastuaz eskaini zuen ikuskizuna ikusi nuen eta zerbait berezia sentitu nuen han. 'Hau da nik nahi dudana', pentsatu nuen.

Eta hemen ikasteko aukerarik izan al zenuen?

A.S. Ez hemen ez zegoen aukerarik eta hainbat ikastaro egitera kanpora joan nintzen. Iruñan edo Frantzia aritu nintzen ikastaro trinkoak egiten, eta horrela joan nintzen pixkana mundu honetan sartzen.

Orain ba al dago hemen dantza afrikarrak ikasteko aukerarik?

A.S. Bai, badago hemen inguruko hainbat herritan urte osoko ikastaroak eskaintzen di-

tuen Guineako emakume bat. Nik ere ia zoko ikasturtean eskaini nituen urte osoko ikastaroak, Donostian eta Oiartzunen, baina aurtengo ezinezkoa egiten zait, Emagintza ikasketak egiten ari bainaiz eta ez daukat denborarik klase finkoak eskaintzeko. Horregatik egun edo asteburuetako ikastaro trinkoak eskaintzen ditut.

Gaur bezalako ikastaro batean zer da ikasleek lortzen dutena?

A.S. Dantza berezi hauekin lehen kontaktua izaten da gehinentzat eta gutxieneko ezagutza nahiz sortzen dituen emozioak esperimintatzea lortzen dute. Zuzeneko perkusioarekin oso giro berezia sortzen da, eta ikasleak gorputz eta arima sartzen dira giroan.

Ikastaroak errepikatzen diren

lekuetan, ikasleek ere errepikatzen al dute?

A.S. Esango nuke baietz. Lehen kontaktu horrek interesa pizten die, eta gehiagoren gosez geratzen dira. Klaseetan sortzen den familia giroak ere asko laguntzen du jendea berriro bueltatzen.

Edozein adinentzat egokiak al dira dantza hauek?

A.S. Adin guztietako jendea agertzen da. Gaur ere, hemen izan ditugu 22 urtetik hasi eta 56rainoko ikasleak. Fisikoki nahiko exijenteak direla esango nuke, baina, era berean, edonork egiteko modukoak.

Nolakoak iruditu zaizkizu Urnietan izan dituzun ikasleak?

A.S. Talde handia izan da, baina jende alai biltu da eta elkartasun giro polita sortu da goizean goizetik. Horrek asko lagundu dit klasearen erritmoari eusten. Beste hainbat dantza praktikatzen duten pertsonak bazeuden tartean, eta noski, horiei errazago egin zaie ikastaroa; besteek, bihar agujetak izango dituzte. Adinak ere badu zeresanik, eta 40 urtetik gorako asko zeuden eta azken orduan nekea nabarmena izan da.

Beraz, nota ona jartzen diezu urnietarrei?

A.S. Bai horixe! Agian, erritmo azkarregian joan naiz eta egun bakarerrako gauza gehiegi landu dugu. Euskaldunak gara eta beste batzuei baino gehiago kostatzen zaigu dantzatzea. Duela gutxi, Toledon eman nuen ikastaro berdina, antzeko pertsona kopuruarekin, eta "beste erritmo bat" zeukaten.

Jarraituko al duzu ikastaro trinkoak eskaintzen deitzen dizuten tokietan?

A.S. Bai horrela da. Nonbaiten dantza afrikarren bidez hainbat emozio esperimintatu nahi badituzte niri deitzea besterik ez dute.

Amalur de los Santos, 616 05 87 91.



1. UXUE TOLOSA

"Nik beste mota bateko dantzak egiten ditut, baina, erakargarria egiten zitzaidan ikastaro honetan parte hartzea, eta ez naiz damutzen. Parte-hartzaileen arteko famili giro hori asko gustatu zait".



2. JOXEAN BELDARRAIN

"Oso dantzazalea naiz, eta Buruntzantzaneko kidea. Beraz, ez nuen inongo zalantzarik izan etortzeko orduan. Oso aberasgarria iruditu zait, nahiz eta azkeneko neke fisikoa ere agertu den".



3. THIERNO IBRAHIMA

"Oso interesgarria dela deritzot horrelako ikastaroak antolatzea, beste kultura baten atak irekitzen dituelako. Egundera pasa dugu, eta ikasi ere dugu, bakoitzak geure mailan".



4. MAIDER OIARTZABAL

"Zoragarria izan da. Asko disfrutatu dut egun osoan. Goizean goizetik sortu da denon arteko talde giro atsegina, eta horrek lagundu digu lotsak baztertu eta buru-belarri bizi eta gozatzera".



5. IWONA KOPERNICKA

"Niri dantzatzea erraz gustatzen zait eta oso gustura aritu naiz. Hala ere, egun bakarerrako ikasgai gehiegi izan direla iruditu zait. Beste ikastaroren bat egiten bada, gustura etorriko naiz".

Saridunak Gazte Lokalean



Sarituak eta lagunak Udal ordezkariekin batera.

Gazte Asteko kartel lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia egin zuten aurreko astean eta aurtengo irabazleak hauexek izan dira:

10-12 urteko mailan:

1. Itxaro Aizpurua (11 urte).
2. Alaia Rodriguez (11 urte).

13-15 urteko mailan:

1. Maider Callejon (14 urte).
2. Garazi Alkain (14 urte).

Informazio bulegoak deitutako "Gomendatzen dizut..." lehiaketako sariduna, bestalde, Ander Jimenez izan da.

Historia haurren eskutik



Lanak ostegunetik ikusgai daude Urigainen. Larunbat arratsez, Zumea plazan.

La Salle Berrozpeko 2 eta 5 urte bitarteko haurrek "Andoain: Lehen eta orain" proiektuaren bitartez 400. urteurrenko euren ikuspuntua azalduko dute, azaroaren 22ra arte Urigainen luzatuko den erakusketan. Proiektu honetarako Andoaingo ibai, mendi, etxe eta pertsonaia

historikoen argazki eta mar-goak txertatu dituzte. Sorabillatik Kaletxikira bitarte ibilbide birtual baten antzeko ibilbide historikoa landu dute. Larunbat arratsaldean, azaroak 22, karpa bat jarriko dute Zumea plazan. Erakusketaz gain, hainbat ekintza iragarri dituzte.

Salkin elkarteko zozketa

Salkin merkatarien elkarteak adierazi duenez, 100 euroko erosketa txartelaren sariduna

na Eugenio Estanga izan da. Sendaki belardenak banatu zuen saritutako txartela.

Udal gobernuaren oharra

Udal gobernuak azken asteetan oposizioan dauden alderdiek egiten ari diren agerraldi ezberdinen aurrean oharra argitaratu du, Udal barruan duten jarduera eza aurpegiratu: "Oso ondo ezagutzen dugu zein den hainbat urtetatik hona egitear dagoen lanen zerrenda; ez dugu behar inork hauek gogoraraztea. Behar dena da, egungo egoera ekonomikoaren aurrean, irtenbi-

deak bilatzeko oposizioko alderdiek proposamen serioak egitea, eta Udal gobernuak proposatzen dituen alternatiba orori ezezkoa adierazteari utz diezaiotela. Izan ere, gogorazi nahi diegu legegintzaldi honetan bideragarritasun ekonomikorako hainbat alternatiba jarri ditugula mahai-gainean, eta hauei ezezkoa emateaz gain, ez dute inolako alternatiba errealik aurkeztu".

Bost ikerlan argitaratu dituzte aurtengo edizioan

Artea edota emakumeak Leyçaur liburu berrian

Udal artxiboa ostegun honetan aurkezteko zen Leyçaur Andoaingo ikerketa historikoen aldizkariaren 13. zenbakia. Aldizkaria izena badu ere, liburu bat bezain mardula da. Aurtengoan bost ikerlan saritu dituzte, hauexek:

BURDINGINTZA ANDOAINEN ETA LEITZARANEN

Xabier Alberdi Lonbide

Iosu Etxezarraga Ortuondorena

Lan honen bidez Andoain eta Leitzarango burdingintzaren hastapenei buruz zenbait interpretazio berri egin nahi izan da. Haranean burdingintza aurre-hidraulikoaren aztarnak topatzeko egindako miaketa arkeologikoen berri ematen da eta, antza, burdina lortzeko teknologiaren bilakaera uste baino konplexuagoa izan zela erakusten da.

ANDOAIN NAPOLEONEN OKUPAZIOAREN MENPE

Carlos Rilova Jerico

Koro Tapia Lizarraga

1808-1814ko Espainiako inbasio napoleonikoaren ondorioz sortutako talde politikoan, normalean "afrancesatu" ize-



Olazabalen artelanak.

nez deskribatu izan direnak aztergai dira. Balizko andoaindar afrancesatu horiek paira ditzaketan ondorio politikoak, ekonomikoak argitzen saiaturiko dira.

ANDOAINGO PAPERGINTZA Victor Placencia Mendi

Papergintzaren ezarpena, garena, gainbehera eta desagertari dagozkioen alde nagusiak aztertzen dira. Andoaingo herrian kokatu zirenak, 1895-2008. urteen bitartean.

ANDOAINGO EMAKUMEEN LANA Iñigo Imaz Martinez

Ezkutuan geratu diren emaku-

Gotzon Etxeberria, Iñaki Olazabal, Pello Irazu eta Jose Ramon Amondarain artisten ibilbidea landu du Itziar Gutierrez gazte historialariak

meen berri eman nahi izan du. Planteamendua hurbilketa ariketa bat da. Haren ustez garrantzitsua da normalean aipatzen ez diren emakumeen izenak ere plazaratzea: tabernari, dendari, inude, langile, baserritar, esneketariak... Baina baita, jabe, alargun, edo bestelakoak. Zentzu horretan, historia idatzian emakumeak aipatzean, historia ofizialean sartzea da. Izan zirenen izenak berreskuratu, garai bateko historia ofizialetan lekuri izan ez zuten emakume ahaztuen lekuko gisa.

ARTEA ANDOAINEN

Itziar Gutierrez Fernandez

Andoaingo gazte historialariak lau artisten bizitza eta obra bildu ditu: Gotzon Etxeberria, Iñaki Olazabal, Pello Irazu eta Jose Ramon Amondarain. Euskal Herriko testuinguru artistikoaren barnean uztartu ditu.

Izena emateko txartelak Stop, Ernaitza eta Delgado eskuragarri

Andoaingo Gudua 2015, izen-ematea liburudendetan

Azaroaren 17an bilera egin zen Bastero Kultur-gunean 2015eko irailean egingo den Andoaingo Gudua ikuskizunean parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera izan zezaten. Bertaratu zirenen artean izena emateko txartelak banatu ziren, ezinbestekoa baita iazkoan parte hartu zutenek datorren urteko ari begira ere parte hartu nahi badute izena ematea.

Nahi duen orok izena eman dezake soldadu edo fusilari bezala, herritar bezala, musikari bezala, aktore bezala edo laguntzaile bezala antolakuntza lanetan. Bi aukera ere egin litezke. Orain izena emateak garrantzi handia du, urtea amaitu aurretik taldeak osatu nahi

Entseguak udaberriarekin hasiko dira eta ikuskizuna 2015eko irailaren 11 eta 12an izango da

baitira, jostunen lana eta antolakuntza lanak bideratzeko. Entseguak udaberriarekin hasiko dira eta ikuskizuna irailaren 11 eta 12an izango da.

STOP, ERNAITZA, DELGADO

Izena emateko txartelak Stop, Ernaitza eta Delgado liburudendetan eskura litezke, baita behin betez gero bertan utzi ere. Antolatzaileek izen emandakoekin harremanetan jarriko dira. Zalantzarik argitu nahi duenak 656 782 521 telefono zenbakira dei dezake.



Iazkoan parte hartu zutenek datorren urtekoari begira ere parte hartu nahi badute, derrigorrezkoa dute izena ematea.

SANTA ZEILIA EGUNAREN ATARIA

Musikari estuki lotutako Andoaingo familia

Arreta deitzen duen horietakoa da Ucin familia, aita eta seme-alabak maiz ikus baitaitezke Gora Kaletxiki txarangarekin Andoaingo kaleetan zehar, nork bere instrumentua eskuetan duela. Klarinetea

jotzen dute Elias Ucin aitak eta honen seme den Xabierrek; Mirari alabak, berriz, saxofoia. Larunbatean ere kalera ateratzekoak dira txarangarekin, Santa Zeilía musikarien eguna ospatzera.

Azkoitiarra da Elias, eta oso gaztetan egin zen musikari hantxe. “Abesbatza kantatzen nuen 10 urterekin, hango fraideekin. Zuzendariak behin tentatu egin gintuen bertako gazteak. Niri, zuzen-zuzenean, zera esan zidan: “zuk behatz luzeak dituzu eta hartu klarinetea; egingo dizut proba, udal musika bandan sartzeko”.

Horrela bideratzen ziren umeak iraganean, herriko bandak zeuzkan premien arabera. “16 urte egin nituen Azkoitiako bandan, soldata eta guzti. Kontzertuak, pasakalleak... Institutuzio bat izan da betidanik banda Azkoitian”.

1999an, Karmen Irasuegi andoaindarra ezagutu zuen Eliasek. “Azkoitia utzi nuen, Andoaingo Zinko Borda baserrira ezkondu bainintzen. Harrezkero, urte batzuetan bazterrean eduki nuen klarinetea, familiako bizi-moduak behartuta”.

Horretan, Mirari, alaba, Andoaingo musika eskolan hasi zen, sei urte bete zituen. Gurasoek animatu zuten, Eliasek bereziki. “Umetako oso oroitzapen gozoak ekarri nituen Azkoititik, bandari lotutakoak: entseguak, entsegu osteko berriketak, kontzertuak... Bizipen horiek guztiak nire alabak ere proba zitzan nahi nuen”.

Musika doinuz etxeko bazterrak betetzen hasi ziren Mirari-ekin, eta halako batean, Mari Karmenek senarrari klarinete bat oparitu zion, bere urtebetez egunean. “Ekin berriro klarineteari, eta laster, Andoaingo bandan jotzen ikusi nahi zaitut”. Aginduak ezustean harrapatu zuen Elias, baina ez zuen aitzakia askorik behar izan, barruan zeraman harra askatzeko.

Denbora berean Xabier, etxeko txikienak ere hautua egin zuen: “gogoko nuen etxean bizitzen zen musika giroa, eta musika eskolan hasi aurretik, jada etxean sartu zen klarinete berria jotzen hasi nintzen pixka bat”. Mari Karmenek aitortzen duenez, Xabier goizean goiz esna-



Ucin Irasuegi familia osorik, Sorabillako aurtengo jaietan.

tzaera ohitu zen bolada batean, edozein jostailu baino estimatuagoa zeukan klarinetea eskuetan hartzeko irrikitan.

TXARANGAKO KIDE, HIRURAK

Elias, Andoaingo musika bandak 100. urteurrena ospatu zuenean hasi zen bertan. Handik gutxira, Gora Kaletxiki txarangako ateak ireki zitzaizkion, Joxe Ramon Berrondo eta Jexus Ibañezek tentatuta. Aita eta alaba hasi ziren batera, orain pare bat urte. Bandako zuzendari den Fernando Uribesalgo, lehenengo egunetik geratu zen harrituta, Mirarik saxofoiaren erakusten zuen abilitatea zela medio. “Harribitxi bat daukagu txarangan, neska honekin” errepikatu ohi du galdetzen zaion bakoitzean.

Xabier, bere aldetik, iaz bihurtu zen txarangako kide; Los Rubi taldeari Santa Krutz jaian bezperan Basteron eskaini zitzaion omenaldian egin zuen estreinua. 500 pertsonen aurrean jo beharrek, ez zuen kikildu mutila: “ez nintzen urduri jarri! Gainerako musikarien atzetik igo nintzen oholtzara, entzuleei batera begiratu gabe. Ez naiz gogoratzen, ordea, notak ondo

“Egundoko aukera eman digu Gora Kaletxiki taldeak. Ez baita batere normala txaranga batek 10-13 urteko gaztetxoei tokia egitea”

jo ote nituen”.

Eliasek ez du gaizki ikusten horren gazte diren seme-alabak kalera irtetea, txaranga batekin. “Musika eskola baten dinamika akademiko eta serioa, eta, txaranga baten informaltasuna eta

kalea zapaltzeko joera osagarriak izan daitezkeela iruditzen zait”.

TXARANGA ATIPIKOA

Txarangarekin esker oneko sentitzen da Elias, “egundoko aukera eman digu Gora Kaletxiki taldeak. Ez baita batere normala txaranga batek 10-13 urteko gaztetxoei tokia egitea. Batetik, txaranga batek “egurra” edo “zarata” behar baitu, eta hori metalekin lortzen da, ez klarineteekin. Bestetik, txaranga baten formatoa ahalik eta musikari



Xabier, Elias eta Mirari, Eider, txarangako beste kide batekin batera.

MUSIKA KALEAN

Azaroak 22, larunbata

12:00 Gora Kaletxiki txaranga Andoaingo kaleetan zehar.
18.00 Zumea plazatik abiatuta: Olgain txistulari taldea, Ikastolako ikasle ohien txistulari taldea, Alberto Agirre abesbatza, Musika Eskolako abesbatza eta Kantu Kale Jira.

gutxienekin osatu nahi izaten delako; zenbat eta gutxiago, ahalik eta emanaldi eta sos gehiago”.

Gora Kaletxikik hasieratik ezarri dituen helburuak goraipatu nahi izan ditu Eliasek. “Filosofia herrikoia dauka txarangak; musikari gazteak hartzen ditu, eta aldi berean, bere ekarpen txoa egiten dio herri giroari. Andoaingo makina bat ekitalditan hartzen du parte (auzoetako jaietan, jai berezietan, danborradetan, Errepublikako egunean...). Luxu bat da Andoaintzat halako kale alaigarria edukitzea herrian bertan, herritarrek osatutakoa”.

EZINBESTEKO LAGUNTZAILEA

Karmen, familiako hiru musikarien itzalean geratzen den etxe-koandrea dela dirudi, baina gogo onez hartzen du laguntzaile eta animatzailearen papera. “Nik ez nuen aukerarik eduki musikan trebatzeko txikitan; pena horixe daukat, eta behinik behin, gustura geratzen naiz bi seme-alabek hortik jo dutela ikusita. Ahal dudan zeregin guztietan laguntzen diet; ez dezaten etsia hartu batez ere, ulertzen baitut ez dela batere erraza musika munduan aurrera egin nahi duenaren bizimodua. Motibatuta dabilta bi seme-alabak, eta ez daukat zertan atzetik ibili beharrik errieta egiten, instrumentua har dezaten entseatzeko. Etxean, entsegu partikularretan hasten direnean ez dut irratirik behar, musika bazter guztietan baitabil airean”.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Katalunia, eta orain

Azaroaren bederatzia izan zen Kataluniako Parlamentuak hautatutako eguna katalanek bozka eman zezaten. Hasieran kontsulta, erreferenduma deitu zioten. Ondoren Espainiako Gobernuaren errekursoak zirela eta izenez aldatuz joan ziren, eta, azkenean, populazioaren parte hartzea deitu zioten eta mila buruhauste izan zituzten han hemengo legeak saihesteko. Jakina, politikoei bi mugimendu zibil indartsuak zituzten lagungarri: ANC (Kataluniako Asanblea Nazionala) eta Omnium. Eta hauei eta bolondresen lanari eta borondate onari esker lortu zuten Parlamentuak ezarritako egunean nahi zutenek bozka ematea. Abilezia jokatu zuten eta, nahiz eta ez izan kontsulta edo erreferendum ofiziala, han joan ziren bozka ematera. Informazioen arabera, bi milioi eta erdi izan ziren bozka eman zutenak. Eta baldintza horietan ez da gutxi.

Izan ere, zailtasunak ez dira izan nolanahikoak. Beldurra ere erabili dute jendeak bozka eman ez zezan eta medio guztiak erabili dituzte eragozteko. Baina, hainbat herritarren frustrazioa saihestu dute eta ez da gutxi. Helegiteak hor daude eta horien inguruko eztabaida ere bai Kataluniako eta Espainiako epaile eta fiskalak ez baitira nonbait ados jartzen. Ikusi egin behar zertan geratzen den. Gaur entzun dut Rajoy Kataluniara joatekoa dela, bere alderdian nonbait ez daude oso konforme Kataluniarekiko izan duen jarrerarekin. Ez du lan erraza! Honen haritik, bestalde, badirudi Kataluniako PPKo buruzagi den Alicia Camachok Estatuko Fiskaltzaren demandari aurre hartu ziola, azaroaren 9ko igande gauean bertan adierazi baitzuen Fiskaltzak demanda jarriko zuela. Hori da Estatuko botereak nahastea. Orain, berriz, badirudi Kataluniako Fiskalek ez dutela arrazoirik ikusten demanda jartzeko, eta Estatuko Fiskala hor dabil Gobernuarekin batera behartu nahian.

Azaroaren 9an eguniko galderari buruz ere zertxobait esan nahi nuke; alegia, boto-bartelak bi galdera zituen. Bata: Nahi al duzu Katalunia Estatu Subiranoa izan dadin: bestea, berriz, baietz badiozu nahi al duzu Estatu hori Independentzia izatea? Beti esan dut, nire irudiko, Erabakitze Eskubidea independentziarekin estuegi lotu dela eta gauzak bereizi egin behar direla uste dut, ez baitira berdinak. Behin eta berriz diot garrantzitsua delako: Erabakitze Eskubidea errebindikazio demokratikoa da erabakitze aukeren artean bat baino gehiago egon daitezke: hala nola, independentzia, federalismoa, autonomismoa, subiranotasun partekatua etab...

Horregatik, Katalunian izan ziren,

asko ez, noski, lehenengo galderari baiezkoa eman eta bigarrenari ez baina, beste aukerarik ezean, batek baino gehiagok pentsa dezake bigarrenari ezezkoa eman zionak hemen esaten den bezala Unionista edo Espainolista zela. Eta hori ez da horrela. Jo dezagun ni Katalunian nagoela eta seguru emango niokeela lehenengorari baiezkoa, nola ez! Baina agian bigarrenari Federalismoa emango nioke eta ez da ezer pasatzen. Gehiengoz irabazten duena bedi ongi etorria! Baina ez ditzagun gauzak nahastu, eta bozka-txartelean aukera hori alegia ez da agertzen.

ETA ORAIN?

Orain dirudienek Kontsulta edo defendatu duten indarrak ez datoz ados geroarekin; batik bat, CIU eta ERC bien artean baitago lehia. Seguruena Mas presidentea azaroaren 9aren ondoren indartua atera da zuhurtasunez jokatu baitzuen kontsulta egin zedin eta gustukoa luke hauteskunde plebisitario batzuetara zerrenda buru bezala aurkeztea. Baina, jakina. Ezkerre Errepublikanoari ez. Horregatik defendatzen du alderdi bakoitza joan dadila bere aldetik eta, ondoren, Koalizio gobernu bat osatu ahal izateko. Bestalde, Mas presidentea eta bere alderdiak erritmo lasaigo batean joan nahi dute. Dena den, nola edo hala hauteskundeak eman, emango dira eta ikusi egin behar gora-behera hauen guztien ondoren Kataluniako populazioak zer aukeratzeko duen. Guk, hemendik errespetuz hartu behar dugu beraien erabakia eta bidea.

Hemengoari buruz, bestalde oraindik ezer gutxi esan genezake. Alderdietatik haratago, Erabakitze Eskubideren herri mugimendua aurrera doala eta hori txalotu behar da; zenbat eta zabalagoa eta anitzagoa izan hainbat eta indar gehiago izango baitu alderdi Politikoen erabakietan. Baina nago EAJk abisua eman diela nabigatzaileei: Guk alderdi guztien kontsentsua nahi dugu, Estu Zentralarekin adostua eta subiranotasun partekatua.

PROPOSAMENA

Azken ohartxo bat: Harrituta nago nola Urnieta Andoainek AIURRI bezalako astekari bat edukita Erabakitze Eskubidearen inguruan dabilen jendeak nola ez duen idazten gai honi buruz eta iritzi desberdinak kontrastatu iritzi publikoa sortuz.

Zeren nago, askotan, inpultsoz jokatzen dugula gauza behar bezala ezagutu gabe. Horregatik dei bat: Aprobetxa dezagun AIURRI, beste berri askoren artean horrelako iritziek ere leku izan dezaten. Pentsatzen dut, astekari osatuagoa izanen litzatekeela. Nire iritzia da.

Larunbat honetan babarrun jatea, kalejira eta kontzertuak

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko hitzordu berriak



Kataluniarrek eta Axeri dantzako kideak giro ederrean ibili ziren aurreko asteburuan, Gaztetxeak antolatuta.

1 2 + 18 urtemuga ospatzeko ekintza ugari egin dituzte Gaztetxean eta ostegun honetatik aurrera ere, hamaika hitzordu izango dira. Egun handiena larunbata izango dute Gaztetxe kideek.

Urteurrena ospatzeko kontzertuak, bertso saioa eta abar izan dituzue. Zer moduz joan dira?

Oraingoz martxa onean doa urtemuga. Hilabete honetan Gaztetxe batek eman dezakeena islatzen da egun gutxitan. Kontzertuak, antzerkia, ume-entzako saioa, mendi martxa, poesia emanaldia, bertso afaria... Gauza politak egin dira. Bertso afarian 45 lagun izan ziren ostegun gau batean, antzerkian 50etik gora eta umeen eguna arrakastatsua izan zen. Egun berezia izan zen honakoa, Gaztetxetik pasa diren asko beraien umeekin datozelako gaur egun.

Zein ekintza nabarmenduko zenukete datozen egunetarako?

Larunbatean ospatuko dugu

egun handia. Eguerdian urteroko babarrun jana egingo dugu, eta ondoren kalejira herri- zehar Orkresta elektrotxar-angarekin. Gauean berriz, Ze Esatek eta Itziarren Semeak ariko dira zuzenean. Festa polita izanen da. Urtemuga amaitu aurretik kontzertu interesgarriak ere egongo dira: Kashbad, Libe, Niña Coyote eta chico Tornado, Anari, Beñardo ta Morau...

Gaztetxe zaharra Euskal Herriko lehenengoetarikoa izan zen, eta oraindik lanean darrai. Nori eta zeri esker iritsi da honaino?

Etenik gabe, 30 urtez egon da gaztetxea Andoainen, eta esan daiteke, gure herriko belaunaldi asko eta asko pasa direla bertatik. Urte hauetan guztietan Gaztetxearen errealitatea ezberdina izan da. Aktibitate askoko garaia izan dira, bai eta ganora gutxiok ere. Baina beti egon da hor erabili nahi izan duenarentzat. Egun, gazte jendea eta gazte helduagoek bat egiten dute bileretan.

“Belaunaldi ezberdinen uztarketa bizi dugu orain. Eta hori gauza positiboa da”

Zer moduz ari zarete lanean belaunaldi berriak?

Azken boladan jende berria batu da asanbladara, eta ideia berriak hasi dira ateratzen. Beti izan da horrela. Gaur egungo bizimodua ez da orain dela 10 edo 20 urtekoa bezalakoa. Hala ere, Gaztetxeak beti tin-ko eutsi dio asanbladatan antolatzeari, eta autogestioan bizitzeari. Belaunaldi ezberdinen uztarketa bizi dugu orain. Eta hori gauza positiboa da.

Eta etorkizunera begira, zein dira zuen erronka nagusiak?

Alde batetik asanbladak egon-ortu nahi dira. Asteazken arratsero burutzen dira urte osoan zehar. Bertan erabakitzen dira aurrera begirako ekimenak eta ideiak. Bestetik, orain arte bezala, ekintzak eta aktibitateak egiten jarraitzea da asmoa.

Postontzia: “Hari gara”

Urnietako EH Bilduko hauteskunde taldea

“Azaroak 6an EH Bilduk Urnietan izandako batzarrean, HARI GARA prozesua aurkeztu eta martxan jarri zuen. 2015. Urteko udal eta foru hauteskundeei begira prestatutako prozesu parte hartzaileak da HARI GARA. Prozesuaren nondik norakoak azaldu ziren bertan. EH Bildu

udal taldeak, diagnosia aurkeztu zuen eta orain herritar eta eragileen ekarpenak jasotzen ari gara, diagnosi hori osatzeko. Batzartutakoaren artean, solasaldia egon zen prozesua eta diagnostikoaren inguruan.

Hurrengo batzarra abenduan aurreikusten da. Diagnosia osatua izango dugu ordurako eta honen aurkezpene

egingo da. Urnietaren argazki horretatik abiatuta, proposamen ezberdinak biltzeko unea iritsiko da. Proposamen hauek, mota guztietakoak izan daitezke: orokorrak, gai konkretuen inguruan edo ekimen zehatzak. Herritarren eta herriko kolektiboen beharrei erantzuna bilatzea izango da helburua eta proposamen guztiak izango dira ongi etorriak”.



KIROL ALBISTEAK

Munduan zehar bizikletan

Laura Martinez madrildarrak eta Aitor Iginitz andoaindarrak ia zazpi urte daramate elkarrekin bizikletan, munduan diren eta ez diren herrialdeak zeharkatuz. Euren familiei eta lagunei bisitatxoa egitera itzuli dira jaioterrira. Aurki, baina, urtarilaren 10ean hain zuzen, berriro bidean jartzeko asmoa daukate. Hitzaldia eman zuten Andoainen, Euskalduna mendigoizale elkarteak antolatuta.

Irribarrea eta umorea ezpainetan etengabe mantenduz jardun zuten Euskaldunaren egoitza bete zuten mendizale eta naturzaleen aurrean. Azken hiru urteetako ibilaldia hizpide izan zuten batez ere, argazki ederren laguntzaz. 2011ko abenduan Leitzarango bidea hartu zutenetik Indiara (Himalaya) bitarte bizitako makina bat bizipen kontatu zituzten, entzuleengan harriturra eta inbidia eraginez.

Besteak beste, Europa mendebalde eta ekialde, Turkia, Sobiet Batasuneko herrialde ohiak, Turkmenistan, Txina, Mongolia eta Indian barrena ibili dira bizikleta gainean.

Egin zituzten kontakizun entzungarri guztietatik, bi gertakizun azpimarra daitezke, beraiek bereziki gogoan ekarri dituztenak. Txinan, bertako agintariek kanporatu egin zituzten, Aitorrek aitortu zuen bezala: "Txinako mendebaldean, Xinjiang izeneko herrialdean oztopoak besterik ez zizkiguten jarri. Gutxiengo etnikoa bizi da bertan, musulmana sinesmenez, eta Tibeten bezala jokatzeko du Txinak han, okupazioaren eta errepresioaren politika erabiliz; jakina, ez dute kanpotik heldutako lekukorik nahi. Tibetarrak baina matxina zaleagoak dira, baina handik ez zaigu berririk iristen. Zergatik ote? Bada, musulmandarrak direlako, eta ez zaizkigulako budazaleak bezain atsegin egiten. Azkenean, Txinan bisatua berritzaera joan ginenean zigilu berezia jarri zigutela eta pertsona susmagarriak omen ginenez, berriro Txinan sartzen utziko ez zigutela adierazi ziguten".

Dubai hirian (Arabiar Emirerri Batuak), jeke aberats baten etxean ia hilabeteko ego-



Aitor Iginitz eta Laura Martinez bikotea munduan barrena bizikletan dabil.

"Bizikleta xumea eraman behar da, hartara edozein matxura edukita ordezkotzeko erraz topatzeko"

Ostiral honetan hitzaldia eskainiko dute Sorabillako elizan, arratsaldeko 19:00etan hasita

naldia egin zuen bikoteak, basamortuan. "Jeke hark gure bizimodua daramaten pertsonak ditu gogoko, eta gure aditzaia eduki zuen bezain pronto, bere etxera gonbidatu gintuen. Esan beharrik ez dago nola hartu gintuen, zein baldintzetan eduki gintuen gonbidatu gisa. Bera bezalakoak zeharo aberatsak dira, eta ohituta daude beraingana jendea eskean joatera. Nik uste, anfitrioi honek guregandik zera estimatu zuela: garen bezalaxe jokatu izana, bizikleta gainean lekuak eta pertsonak ezagutzeko gogoia edukitzea, eta ez dirua egitera joatea".

GALDEREN TXANDA

Maiz egiten dizkieten galderei erantzun behar izan zien, behin mintzaldia amaituta eta entzuleen txanda heldu zenean. Lehenengoa, ea gogorra den bizikletari itsatsitako bizimodu hori. Laurak erantzi zion horri: "Ez da aparteko asoia eduki behar. Gogoa eta motibazioa, batez ere. Egunean lautik sei ordura egiten ditugu bizikleta gainean. Goizetik hasita, beti daukazu zereginen bat eta egun osoan burua okupatuta daukazu".

Hainbeste urte elkarrekin, eta ez ote diren aspertzen, haserretzen... Arpegian irribarrea zuela hartu zuen hitza Aitorrek: "Harrigarria da, eta guri ere kosta egiten zaigu sinestea, baina bidaide gisa da-

ramatzagun zazpi urteetan ez dugu haserrealdi handirik eduki. Izaeraz ez gara eztabaidazaleak, eta apenas eduki ohi dugun sesiorik!". Albotik, zera erantsi zuen Laurak: "Nahikoa daukagu eguneroko bideari eta bidean lotu behar diren zereginiei aurre egitearekin! Ez du merezi horrela hasteak".

Zer nolako elikadura daukaten jakin nahi izan zuen entzule batek. "Arroza oinarria da guretzat. Gero, platerari espezieak botatzen dizkiogu, makina bat zapora lortzeko. Eltze espresak asko laguntzen digu otorduak prestatzeko orduan. Bestalde, denboraren poderioz eta eskarmentuari esker, ikasten duzu zeure gorputza ezagutzen, berari entzuten. Badakizu zer eman behar zaion, zenbat, noiz...".

Kilometroak eta kilometroak egiteko bizikleta egokienaz aholkatzeko eskatu zieten: Zehatza izan zen Aitor: "Bizikletarik sendoena. Llantalak gogorak edukiko dituen. Jendeak maiz pentsatzen du bi mila euroko bizikleta daukagula, baina ezta pentsatu ere! Nirea zahar-zaharra da, orain 25 urte merkaturatu zituzten mountain bike horietakoa, suspentsiorik gabekoa. Hoberena, beraz, bizikleta xumea eramatea da, ze hartara edozein matxura edukita komeni zaizu ordezkotzeko erraz topatzea eta dena konpontzea, zauden herrialdean zaudela ere".

Euskalduna futbol taldea liburu berria osatzen ari da

SD Euskalduna taldeak klubaren historia ardatz duen liburua argitaratzeko asmoa du. Oraingo honetan, ordea, taldeko argazkietan arreta ipini nahi du. 1923. urtetik gaurdaino, hain zuzen. Infantil, kadete, jubenil, erregional eta hirugarren mailako taldeak bildu nahi dituzte liburuan.

Egilea **Javier Zatarain** izango da eta herrikideei liburua osatzeko laguntza eskatu die. Zehazki, 1970-71, 1971-72, 1972-73, 1973-74 eta 1978-79 denboraldietako argazkiak behar ditu, aipatutako maila horietakoak. Harremanetarako: euskalduna1923@gmail.com 653 742 252

Euskalduna 3-2 Urnieta

9. jardunaldia:	Sailkapena:	
Euskalduna 3-2 Urnieta	1. Orioko	22
Asteburuko partidak:	2. Urnieta	20
Orioko-Euskalduna	3. Baskonia	18
Urnieta-Deusto	5. Euskalduna	18

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak	Asteburuko partidak Andoainen
Ganbara Sen. 49-48 Zast	Ganbara Inf.-BKL
Ganbara Kad. 51-28 Oiartzun	Larunbata, 22. 09:00.
Aldapeta 30-28 Ganbara Inf.	TAKE-Ganbara Sen.
	Larunbata, 22. 14:00. Tolosa.

Urnietako pilota albisteak

Urnietako (2)	40	Altzatarra 25-2 Urnieta (1)
Ander Goikoetxea-Ibai Martiarena		Jon Iturbe-Unai Arozena
Urnietako (1)	39	Gomazko paleta, senior maila. Donostiarren aurrelaria garaitezkin aritu zen, beste maila batean dago. Alor guztietan gailendu zen.
Imanol Ansa-Xabier Olaeta		
Erremontea, senior maila. Txapelketa martxan jarri da Gipuzkoan, Euskal Herrikoan maila ona emateko helburuarekin. Aurrelariak urduri aritu ziren, atzealdean aritu zirenek hobeto xego. Denek ere maila hobea emateko gaitasuna badute. Jardunaldiak aurrera egin ahal, hobekuntza hori gauzatzea espero dute.		
		Gazteleku 23-25 Urnieta (2)
		Sergio Odriozola-Xabier Garagorri
		Gomazko paleta, senior maila. Sergioren partida ona. 18-24 garaipena eskuetan zutela urduri jarri zen. Debut ona Xabierrena.

Areto futbol txapelketa

7. jardunaldia.	Leiza 77 6-2 Ondarreta
Azaroak 16, igandea:	Galpasitx 7-4 Academia G.F
Ekaitz 0-12 Centro Extremeño	Hogar 0-6 Aure Maiton
Ekhia 2-2 Txalaka	Keler 12-1 Pausoka

Eskubaloia, senior maila

1. Maila. 6. jardunaldia:	Sailkapena:	
Urnietako 26-28 Usurbil	1. Donibane	10
Donibane 33-17 Leizaran	2. Usurbil	10
Asteburuko partidak:	3. Izarraitz	8
Eibar-Urnietako	5. Urnietako	6
Leizaran-Izarraitz	8. Leizaran	2

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaiak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 20TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **“Juegos del hambre: Sinsajo 1”**
19:30, 22:00.
Azaroak 22, larunbata.
19:30.
Azaroak 23, igandea.
19:30, 22:00.
Azaroak 24, astelehena.

■ **“Relatos Salvajes”**

Hurrengo asteburuan.

■ **“Hurak eta lapurrak”**

Azaroak 29 eta 30. 17:00.

■ **Opera proiektzioa:**

“Tosca”, Giacomo Puccini-rena Londreseko Royal Opera Housetik.
Abenduak 5, ost. 20:15.

Urnietan, Sarobe

■ **“Rio 2”**

16:00, 18:30.
Azaroak 23, igandea.

■ **“Hysteria”**

Azaroak 28, ost. 22:00.

Bazkariak

Andoain

- 1974an jaiotakoek deituta.
21:00 Afaria Oianumen.
Azaroak 22, larunbata.

Zarzuela

Andoain, Bastero

- “La del manojo de rosas”, Santa Zezilia jardunaldiak: Musika: Pablo Sorozabal.
21:30. Auditorioa.
Azaroak 21, ostirala.

Musika

Andoain, Bastero

- Udal Musika Eskolako Bandaren emanaldia. Piratas del Caribe filmako musika, Bolero aukeratuak edota musika latino eskainiko dituzte.
12:00. Adin guztientzat.
Azaroak 23, igandea.
- Izeba tekla, Lanku bertso zerbitzuak.
17:00. Haurrentzat.
Azaroak 23, igandea.

Lehiaketa

Andoain

- **Andoaindarrak izar talentu lehiaketa** martxan jarriko du Gazte Lokalak. Hautaketa probak: 18:00. Gazte Lokala.
Azaroak 21, ostirala.
Finala: 18:00. Bastero.
Azaroak 28, ostirala.

Irteera

Andoain, Ludoteka

■ **“Larunbatean euskaraz”:**

Irrisarriland gunera irteera.
Azaroak 22, larunbata.

Zikloa

Andoain

- “Genero ikuspegitik herrian hobetu beharreko puntuen mapa osatzen”, Udalak antolatutako parte hartze egitasmo berria. Bilerak:
Berdintasun kontseilukoak:
18:30. Urigain.
Azaroak 24, astelehena.
Deialdi irekia:
18:30. Bastero.
Azaroak 26, asteazkena.

Gune ibiltaria

Andoain

- Emakunderen Berdintasunerako gune ibiltaria: Autobus bat dabil herritik herrira ekimen ezberdinak aurkezten. Andoainen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Planaren aurkezpen bideoa ikus ahal izango da, eta beste bideo batzuk ere, Andoaingo emakumeen parte-hartzea azaltzen dituenak.
Goikoplaza:
10:00-14:00 / 16:00-20:00
Azaroak 21, ostirala.
Zumea plaza:
10:00-14:00 / 16:00-20:00
Azaroak 28, ostirala.

Matrikula

Andoain

- 2015eko urtarrilean 0-1 eta 1-2 urteko haurrak Galar-din matrikulatzeko epea laster zabalduko dute: Azaroak 24-abenduak 5. Izen-ematea: Bastero.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- Ainhoa Akutain Ziarrusta artistaren lanak ikusgai. Abenduaren 20ra bitarte.

Odol-emaileak

Urnietan

- Anbulatorio zaharrear. 18:30-20:30.
Azaroak 28, ostirala.

Gazteak

Andoain

- **Gaztetxearen urteurrena:**
Azaroak 22, larunbata
14:00 Babarrun jatea.
Ondoren poteoa Orkresta elektrotxarangarekin.
22:30 Kontzertua:
Itziarren Semeak, Ze esatek!
Azaroak 24, astelehena
19:00 Urteurrenako luntxa.
Azaroak 27, osteguna
20:00 Bakarritzeta:
Oroitza-penak.

Urnietan

- Hitzaldia: “Sexuen arteko harremanetan elkar ulertzen”.
18:00. Gaztegunea.
Azaroak 20, osteguna.

Literatura

Andoain, Liburutegia

- Literatur solasaldia: **Dolores Redondoren** “El guardian invisible” eleberria hizpide. Ordutegia: 19:00-20:30.
Izen-ematea Udal liburutegian bertan edo 943300615 telefono zenbakira deituz.
Azaroak 25, asteartea.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Kaixo bihotzita! 5 urte zoragarri bete zenituen azaroaren 17an. Muxu handi bat Amoñi, Oxaba, Jaio eta Elurren partez!

ANDOAIN

ZORIONAK



Azaroaren 23an **Markel** etxeko txapeldunak 9 urte beteko ditu. Millaka muxu. Asko maite zaitugu. Aita, ama, Malen eta Urki.

URNIETA

ZORIONAK



Aitanak eta Albak 8 urte beteko dituzte abenduaren 15 eta 1ean. Zorionak eta muxu handi bat bientzat!

URNIETA

ZORION AGURRAK AIURRIN

- diseinua@aiurri.com
- Aiurriko bulegoetan

ZORIONAK



Peru Jorge etxeko piratak 4 urte bete zituen azaroaren 18an. Zorionak eta muxu pottolobat etxeko guztien partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aratz Kortaxarena Irazuk azaroaren 18an 14 urte bete zituen. Eskubaloian bezain seme ona izan zaitezten. Mxk.

ANDOAIN

ZORIONAK



Azaroaren 11n berrogeita... bi urte puxka. Lasai, beti bezain guapo zaude. Milaka muxu etxeko partetik.

ANDOAIN

Euskararen astea iristear

Azaroaren 28tik abenduaren 4ra Andoaingo Udalak “Euskararen eguna” izeneko zikloa antolatuko du. Ekitaldi sorta izango da, besteak beste Andoaindarrak izar lehiaketa, ikasle kalejira, haur zinema, kantu kalejira, adierazpen instituzionala eta pintxo potea.



andoainDARRA
euskaraz

AZAROAK 29, LARUNBATA: KANTU AFARI INTERNAZIONALA
21:00etan hasita, Kotoi elkartearen kantu-afari internazionala antolatu dute. Banaiz Bagara elkartearen kideek munduko plater desberdinak prestatuko dituzte eta ondoren musikari tarteak eskainiko diote. Txartelak 15 eurotan salgai daude. Azaroaren 26 arte ondorengo tokiak eskuragarri: Ernaitza, Ataria eta AEK euskaltegia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

DATORREN AIURRI ASTEKARIA AZAROAREN 14AN ARGITARATUKO DA